

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko azaroak 7 • 109.zka. •




Udalak militarren sartzea eragotzi


Diara: Expotecnia 96 erakusketara

Murrukixo: Mendi astea

Hemengo aberastasuna, hango heriotza



Babes
Bikoitza


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Azaroan zehar
**Istripu Asegurua eraman
dezakezu DOAN**

Etxebizitza edo Bizitza Aseguru
bat kontratatuz gero.

Bizitzan badira zenbait gauza
preziorik ez dutenak. Eta horietako
bat zure etxekoan segurtasuna da.
Horregatik, **Azaroan zehar**
Euskadiko Kutzako Etxebizitza edo
Bizitza Aseguru bat kontratatzen
baduzu, 3.000.000 pta.ko Istripu
Asegurua oparituko dizugu.
Etxekoak erabat babestuta izan
daitezten. Eta hori guztia oso prezio
onean. Adibide Hauek ikustea
baino ez duzu:

- **Etxebizitza Asegurua:** 175 pta./m²
- **Bizitza Asegurua (35 urteko
pertsone batentzako adibidea):**
urtean 9.343 pta.n 3.000.000 pta.
ziurtatuta.

Lehen 1.000
kontsultek
oparia
jasoko dute


Informazio
gehiago nahi
baduzu, deitu
telefono
honetara

901 - 333 444



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala
Basabe Poligonoa, A-1-3
Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86
ARETXABALETA



Nazioarteko komunitateek hartu beharko lukete parte Zaireko gerran?

*Karmele Unzueta
(Etxekoandrea)*

Kanpoko agintariak sortu dute borroka hori. Kanpotik bialtzen zaizkie armak eta hor interes politiko haundiak daude.

Ahal duguna guk egin behar dugu.




*Paulo Bengoa
(Langilea)*

Hemendik bialtzen zaien laguntzaz gerran jarraitzeko laguntza gehiago ematen zaiela uste dut, armekin... Gerra horri indarra kentzeko modu bat bilatu behar da.



*Francisco Espinal
(Jubilatua)*

Nazioarteko komunitateek irtenbide bat eman beharko lukete. Nik uste dut ez direla ezer egiten ari. Penagarria da hango egoera eta lagundu beharra dago.



*Antonia Navarro
(Etxekoandrea)*

Nik uste dut nazioarteko komunitateak parte hartu beharko lukeela arazo horiek konpontzeko, baina ez du ezer egiten, interesik ere ez du eta.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria



ESKUTITZAK

ERTZANTZA EUSKALDUNA

Orain dela denbora asko kezkatzen nauen arazo bati buruz hitzegi nahi nuke. Izan ere, nire kontzientzia ez dago lasai zuei honako hau komentatu barik.

Beti izan ditut liskarrak ertzainak direla medio, liskarrak izatera heldu ez diren liskarrak. Beti "erruduna" euskara izan delarik. Egonezina sortzen dit "txapel gorri" batekin nire hizkuntzan berba ezin egiteak.

Hainbat eta hainbat bider haserretzera ere heldu izan naiz. Gaur goizean esaterako, zazpi ertzain zebiltzan erdera hutsean. Ahalegindu naizen arren ezin izan dut nire egonezina jasan eta hurbildu egin natzaie. Ea euskaraz ba ote zekiten galdetu diet baina inork ez du nire galdera ulertu. Niri neuri lotsagarria iruditu zait, baina hau hasiera besterik ez da izan. Beranduxeago neuk ere erderara jo behar izan dut, eta hizketan genbiltzala, beraiek zera esan didate, "base minimo" bat eskatzen zaiela. Barregarria benetan: "base minimo" bat, eta ez dute ea euskeraz mintzatzeko gai diren ere ulertzen.

1996ko apirilaren 9an, "El Diario Vasco" egunkarian bazioen euskalduntze plan berriak bere eragina izango zuela ertzantzarengan, Mari Karmen Garmendiak berak adierazi duenez. Orain bost urte antzeraiko zerbaitegin zen arren, ez omen zuen atarramendu onik izan. Ekarriko al du fruitu hoberik hurrengo honek? hala espero behar, guztion onerako.

Ni neu ez naiz baikorregia eta, ekimen ofizial horrez gain, zera uste dut. Denak du bere irtenbidea, beharbada koordinakunderen bat edo bereziki lan horri ekingo liokeen talderen bat sortu behar litzateke gai honen inguruan. Momentuz hasiera bezala ertzainei beti lehen berba euskaraz egitea proposatuko nuke, beraiek ez baitute gure hizkuntza jakin behar dutenik ikusten.

Jon Lekunberri

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Josu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Gorka Etxabe, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Artisau feria Gatzagan

Emakumeendako zine
Forum eta mahai inguruak
Tril emakume taldearen
eskutik

Loramendi Elkarteko Tril emakume taldeak emakumeendako zine forum eta mahai inguruak antolatu ditu. Pelikulek emakumearen arazoak aztertuko dituzte eta emanaldi bakoitzaren ostean Amaia Vazquez psikologo-Sexologoarekin mahai ingurua egingo da. Azaroko hiru eguenetan zehar egingo dira zine forum eta mahai inguruak.

Lehena, azaroaren 14an izango da. "Un mundo de mujeres" izenburuaz zine foruma egongo da arratsaldeko 6,30etan hasi eta 9,30ak bitartean.

Hurrengoko saioa azaroaren 21ean egingo da. Kasu honetan "Un mundo de mujeres" pelikulan oinarrituta autoestimari buruzko mahai ingurua burutuko da arratsaldeko 6,30etatik aurrera.

Ekintzekin bukatzeko azoaren 28an "El poder de las mujeres" mahai ingurua egingo da eta ondoren eztabaidarako tarte egongo da. Hau ere arratsaldeko 6,30etan hasiko da. Gogoratu ekitaldi guztiak Loramendiren lokalean izango direla.

Aretxabaletako gaztetxoek akordeoi
orkestrak kontzertua eskainiko du

Gatzagako artisauek antolatuta eta Gatzagako udalaren laguntzaz azaroaren 10ean artisau feria egingo da Gatzagan. Goizeko 10,30etan hasita 16 artisau desberdinen lanak ikusgai izango dira herriko frontoian: harrizko miniaturak, ehungintza, otargintza, brontzea, artilea, kaikuak, zapatak, paper artisautea, larrua, e.a. Goizeko 10,30etatik arratsaldeko 8,00ak arte iraungo du artisau feria. Eguerdian, jakina, etenalditxo bat izango du.

Honez gain bestelako ekitaldiek ere alaituko dute eguna. Goizean esaterako Auskalo taldea ibiliko da kale bazterrak alaitzen baita Alagera gaiteroak ere.

12,30etan meza entzun ostean, akordeoiaren soinua entzun ahal izango da, Aretxabaletako gaztetxoek akordeoi orkestrak kontzertua emango du.

Eta hau gutxi balitz Sorginak emakume taldekoak eta Pagedar euskera elkarteok talo postua eta taberna jarriko dituzte.

ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34

EGUZKIGRAF
inprimategia
Industrialdea F-0-4
Tfnoa.: 791844
Faxa: 792941
ARETXABAETA

BEIRALAN
B
B
KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaeta

GARBITU S. KOOP
Garbiketa
orokorrak
Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

IMANOL
JANARI DENDA
Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAETA

Udalak militarrek Aretxabaletan sartzea eragotzi du dekretu baten bidez

Udalaren baimenik jaso barik Espainiako Armadako militarrek herrian sartzea debekatu du Aretxabaltetako Udalak, alkatetzako dekretu baten bidez.

Orain bi aste Espainiako armadako militarrek Euskal Herriko hainbat lekutan moduan Aretxabaletan ere burututako maniobrak direla eta hartu da erabakia. Aretxabaletako Udalak bere haserrea eta ezadostasuna adierazi du, alde batetik, baimenik

eskatu barik udal lurra erabili izanagatik, ariketa hauek herritarrentzat arriskutsuak izan daitezkeelako eta bestetik militarren agerpenak herritarren artean beldurra eta urduritasuna sortzen duelako.

Bere egunean HBk pleno berezi bateko gaia moduan aurkeztu bazuen ere gutxiengo quoruma ez betetzeagatik gaia gobernu batzordeko alkatetza dekretu baten modura erabaki zen.



Kabalgataren inguruko batzarra

Oraindik azaroa bada ere laster helduko da abendua eta honekin batera baita gabonak ere. Udaletzeko kultura saila hasita dago gabonak gertatzen eta errege kabalgataren inguruan bere kezka du. Errege kabalgata ez da garai batean moduko ikusgarria eta lehengo indarra hartzeko ahalegin bat egin behar dela ikusten du. Azken urteotan gaztetxoek beren kolaborazioa eskaini badute ere jende nagusiagoaren beharra dagoela ikusten du. Horregatik datorren azaroaren 13an gai honen inguruko batzar bat egingo da udaletzeko ganbaran arratsaldeko 7,30etan. Atxabaltar guztiok batzarrera gonbidatuta zaudete. Herritarren partaidetza beharrezkoa izango da errege kabalgatak garai bateko indarra har dezan. Animatu zaitzete.

Euskal kanten ikastaroa

Bihar hasiko da Loramendi Elkarteak antolatu duen Euskal kanten ikastaroa. Ikastaro honetan parte hartu gura duen edonork bihar, azaroak 8, Loramendiren lokalean azaltzea besterik ez du arratsaldeko 7etan. Kantuak denon artean aukeratuko dira. Beharrezkoa izango da gitarra jotzen jakitea (gutxi bada ere).

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
Kroasantegia
"Janari prestatuak"

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08
ARETXABALETA



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

BP Amaia-Berri, S.L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia


Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

Kurtzebarri, Luis Eceiza eta Almen ikastolako guraso elkarteak antolatuta uretako parkea egon zen Aretxabaletako igerilekuan joan den urriaren 26an. Adin desberdinetako 200 bat neska-mutikok parte hartu zuten bertan. Donusak, txakur puzgarriak, uztaiak, e.a. Denetik probatzeko aukera izan zuten. Ondo pasatu zutela ezin ukatu.



Zelako ondo!

Zepa erraldoia



Aurreko batean Eugenio Zubiak argazkian ikusten duzuen zepa erraldoia bilatu zuen. Bera jaiotako auzoan, Bolibarren, aurkitu zuen. Pago igartu baten sustarretan hasita zegoen. Kostatu zitzaion zepa moztu eta kotxera eramatea, gainera zati bat bertan utzi behar izan zuen. Ia 13 kilo pisatzen ditu zepak, pena jangarria ez izatea.

Mendiolako Txarena baserriko Txina ardi txakurrak argazkian ikusten duzuen moduko bost txakur-kume izan zituen orain bi hilabete. Orain bi bakarrik dituzte baserrian. A zelako politak diren gainera!




Zelako polita!!!

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIAK



MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA




EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33



ESTANKOA

Tabakoa eta
ikasmateriala
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10



Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Animalien olinpiadak

Abiadura izugarriak, sekulako dimentsioak, bizitza luzeak,... Animaliek muga fisiko ikaragarriak gainditu dituzte. Artikulu honetan ornodunak baino ez ditugu ikusiko. Sar zaitezte ba naturako errekorren mundura...

Balea urdina dugu ezagutzen den animaliarik haundiena. 35 metrotako luzera har dezake eta 150 tonatako pisua izatera ere hel daiteke. A ze bitxoa! Honen aurrean ornodunik txikienetako batzuk ipiniko ditugu, esate baterako *kubako kolibria*, 57 milimetrotako luzera duena, edota *satitsu ipotxa*, 35 mm baino ez dituen.

Bitzita luzeena duen ugaztuna gizakia bada ere, 150 urtetara heltzen diren *dordoken* aurrean burua makurtu beharra daukagu. Dordokek beste errekor bat ere badute, animaliarik geldoenetakoa izatearena, norbaitek aztertu duenez 0,37 km/h-tako abiadura ibiltzen baitira. *Belatzak* aldiz, erasoan jeisten denean, 350 km/h-ko abiadura hartzen du batzuetan. Hegaldi lineatean 180 Km/h har ditzake.

Eraztuna jarri zioten *arktiar enara* batek 22.530 Km-tako bidea egin zuen. Itsaso Zuriko kostaldetik Australiaraino jeitsi zen, bidean Atlantiar itsasoa zeharkatu eta Afrika osoari bira emanaz. Bestalde *sorbeltzak* bizpairu urte pasa ohi ditu airean bere bizitzan zehar. Ikusi dituzue inoiz Urkulu aldean? Urtero etortzen zaizkigu bisitan.


Animaliek mundu osoa kolonizatu

dute. Izugarrizko altueratan aurki ditzakegu, horrela, alpinista batzuek ikusi dute *belatxinga moko-horirik* 8.000 m-tik gora eta kontrara *katxalotea* itsasoan 3.000 metrotaraino jeitsi ohi da elikagai bila.

1938. urtean *zelakanto* bat arrantzatu zutenerarte, animalia hau duela 200 milioi urte desagertu zela uste zen. Bizi den animalia hau espezierik zaharrena dela esan dezakegu beraz.


Baina zein ote da animaliarik nagiena? Kandidato faltarik ez dugu behintzat, esate baterako *nagia*, bere bizitzaren %80-a lo pasatzen duelarik. Beste bat ere nahi duzue? Ba horra, Zelandia Berrian bizi den *Tuatara muskerra*, hain da animalia nagia, arnasa hartu ere ordubetero egiten duela.

Eta jatunena? Erabakitzen zaila bada ere hor inguruan dagoenetako bat *piraña* dateke, bost minututan behi baten hezurdura garbi-garbi uzten baitu. *Polifemo tximeletaren* larbak aldiz, bizitzako lehen 48 orduetan bere pisua 86.000 aldiz kontsumitzen du.

 Mikel Arroiabe

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta



URBALTZ TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA



Diara Diseinua

Sao Pauloko "Expotecnia 96" erakusketan bere zerbitzuak erakustera emango ditu enpresa honek

Diara, produktuen diseinua eta garapena lantzen duen enpresa dugu. 1986. urtean Arrasateko Eskola Politeknikoaren babesean sortu eta orain 5 urte Aretxabaletako industrialdean kokatu zen.

80. hamarkadan diseinua gauza berria zen gure artean eta alor honetan, hutsunea nabaria zen. Horregatik proiektuaren bultzatzaileek Italiara jo behar izan zuten diseinuaren inguruko masterra egitera.

Gaur egun badirudi hasierako proiektu hura nahiko finkatuta dagoela baina oraindik ere gogor lanean jarraitzen dute diseinu industrialak duen garrantzia erakustera eman eta merkatuan bezeroak aurkitzeko.

Elisabeth Urrutia, Diarako zuzendariaren esanetan, produktuen diseinua zaintzea beharrezkoa da, bezeroarendako ahalik eta erakargarriena eta erosoena izateko. "Produktu bat bere funtzionaltasun eta kalitateaz gain, beste ezaugarri batzuk ere osatzen dute: erakargarritasuna, ergonomia, estetika, erosotasunak..."

Elementu horiek lantzea da diseinua. Guzti honek beste ezaugarri batzuk ematen dizkio produktuari. Azken finean eroslea produktuaz identifikatua sentitzen da.

Bere zerbitzua arlo desberdinetan eskaintzen du enpresa honek: garraioan, etxeko eletra-tresnetan, telekomunikazioan,

Diara Diseinua, Aretxabaletako industrialdean kokatzen den enpresatariko bat dugu. Diseinu industrialean lan egiten du. Datorren azaroaren 22tik 27ra bitartean bere zerbitzua atzerrian ezagutzera emateko aukera izango du, Brasilgo Sao Paulo hirian egingo den "Expotecnia 96" erakusketan.

Diseinu arloan Euskal Herria ordezkatzeko duen enpresa bakarra izango da.



Diarako lantaldea

bulego ekipamenduan, e.a. Orain arte inguruko kooperatibentzako lanak egin dituzte gehienbat, Fagorren garbigailuaren diseinua esaterako. Azken honek Estatuan ADI FADek ematen duen "Delta de Plata" saria jaso zuen. Baina bestelako lanak ere egin ditu, garrantzitsuenen artean: telebistako urrun magnetogailuendako babeslea; Irizar enpresari saria ekarri dion "Century autobusaren diseinua; Hong Kongeko metroko trenaren bagoien diseinua eta baita telefonikako telefono berriena ere.

Guzti hau lortzeko 15 lagunetako taldea dago Diara barruan: ingeniari teknikoak gehienak, arkitekto bat eta diseinuan adituak diren pertsonak.

Esandako moduan 10 urte bete ditu aurten Diarak eta 200 produktu inguru diseinatu ditu industriako hainbat arlotan. Gainera mundu mailan zerbitzu bat eskaintzeko moduan dagoela ere erakutsi du. Iaz ICEX, Kanpo Kooperaziorako Institutoak gonbidatuta, Thailandian egin zen erakusketan parte hartu zuen. Aurten ostera, Brasilgo

Sao Paulo hirian egingo den "Expotecnia 96" erakusketan bere lanak erakustera emateko aukera izango du. Espainiar teknologia atzerrian saltzea du helburu Instituto honek. Erakusketa azaroaren 22tik 27ra bitartean egingo da eta beste espainiar industri enpresa batzuen artean 4 izango dira diseinu industrialekoak. Diara, Euskal Herria ordezkatzeko duen

"Produktu bat bere funtzionaltasun eta kalitateaz gain beste ezaugarri batzuk ere osatzen dute, erakargarritasunak, estetika, erosotasunak..."



ZUBIA
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE




EZKUTU
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01



Nora begira dago mundua?



Azken urte honetan beste krisi eta gerra batek eztanda egin du Afrikako bihotzean, Zaireko ekialdean. Hasiara baten arazo politikoa zena giza arazo garrantzitsua izatera heldu da. Milioi erdi errefuxiatutik gora noraezean ari da gerratik ihesi. Arazo larri honen aurrean inork ez du pausorik eman nahi. Nora begira dago mundua?

Aretxabaletako, Hiruatx hirugarren mundu taldeak zuzentzen duen Bukavu proiektua ere gerra honen erdian kokatzen da. Horregatik, Damaso Zuazua, Donostiako "La Obra Máxima" ONGtik, Bukavu proiektua bideratzen duen karmeldarrarekin egon gara. Afrikako Laku Haundietan gertatzen ari den arazoaz eta honek Bukavu proiektuan duen eraginaz jakitera eman digu.

AMETS TABERNA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

Iber

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2 ■ Tfnoa: 79 79 24
Aretxabaleta

JOSE MARI bodegoia

(Eguneko menua
(Bataioak
(Jaunartzeak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45
ARETXABALETA

TXAKOLI

a - Pintxoak
b - Kazuelak
e
r - Pulpo espezialitatea

n Andra Mari Auzunea
a Tfnoa: 79 02 25
ARETXABALETA

Damaso Zuazua Egileor base-
rrian jaio zen 1937. urtean. 16
urte zituenean, oraindik oso
gaztea zela fraile egin zen
Zornotzan, eta 24 urterekin abade. Ondoren 10
urtez Vienan bizi izan zen eta bertan Historia eta
filosofiako ikasketak burutu zituen.

Bere bizitzan zehar Euskal Herritik kanpora
denbora askoan ibili da. Monakoko Montecarlo
hirian esaterako 7 urtez irakasle izan zen. Ondoren
8 urte egin zituen Erroman Karmeldarren ordenako
idazkari moduan.

Ondorengo urteetan Afrikara joan zen misiolari eta
6 urte pasatu zituen bertan: Costa de Marfil,
Nigeria, Kamerun, Congo, Ruanda, Burundi, Zaire,
Kenia... bezalako lurraldeetan zehar ibili zen.

Europa eta Afrikako hainbat lurraldetan bizi izan
da eta hizkuntza asko dakizki, horien artean, 6

Damaso Zuazua

europarrak: euskera, erdara,
ingeleza, frantsesa, alemaniera
eta italiera. Haez gain
Afrikako Bantus hizkuntzak ere

berba egiten ditu.

Gaur egun, Donostiako "La Obra Máxima"
aldizkariaren zuzendaria da. La Obra Máxima
ONGa misio desberdinak dituen zertrua da.
Bukavu proiektua moduan beste batzutat ere
arduraten da, zuzenki edo eta proiektua bideratuz
beste batzutan.

Damasok gustoko du Afrika eta joan-etorri asko
egiten ditu bertara. Lurralde pobrea izan arren,
bertan moduko bihotz oneko jendea inon ez duela
ikusirik baiezatzten du.

Hori bai, bere jaioterria ere bihotzean darama eta
Aretxabaleta eta Egileor baserrira ere etortzen da
ahal duenean.

***"Gerra hemendik zirikatutakoa
eta bultzatutakoa da. Armak
salduta hemengoak aberastu
egiten dira eta interesa dago han
gerra egon dadin"***

zatia ere eurentzat nahi
dute. Oso zati aberatsa eta
oparoa dena. Bertan Hutu
errefuxiatuak bizi dira,
baita zairetarrak eta Tutsi
banaka batzuk ere.

Zairek errefuxiatuak
Ruandara bidali nahi
zituen aitzakiaz Tutsiak

borrokan hasi ziren eta ez hori
bakarrik Zaire ekialdeko zati bat
eurentzat hartzen ari dira.

Bitartean, bertan zeuden 700.000
errefuxiatuetatik gora (gehienak
hutuak) noraezean dabilta.

Zaireko ejerzitoak ez du asko
balio. Ez dute antolakuntza egokirik,
gutxi ordainduta daude eta euren
moralak ez da behar den modukoa.

Tutsiek armak, dirua eta nazioar-
teko laguntza dute. Oso jende habila
da, altua eta goapoa eta joaten diren
lekuan indarra azkar hartzen duten
horietakoak.


Zoritxarrez, Zaireko zati bat
hartuko dute baina guzti honen arra-
zoia hemen dago.

**• Zergaitik esaten duzu arra-
zoia hemen dagoela?**

Gerra hemendik bultzatua eta
zirikatua izan delako, herrialde
garatuetatik. Afrika erdian ez dago
arma fabrikarik, Libian eta Hego
Afrikan izan ezik. Hemendik
heldzen zaizkie armak. Interes
haundia dago han gerra egon dadin,
horrela hemengoak aberastu egiten
dira.

**• Egoera latz honen aurrean,
mundua eta Nazioarteko Komu-
nitatea nora begira daude?**

Europak ez du orain arte ezer
egin eta ez du egingo. Frantzia
Hutuen aldekoa da, Belgika eta
Ameriketa berriz, Tutsien aldekoa.
European estatu batek besteekin



**• Damaso, askotan izan zara
Afrikako Zaire Estatuan. Zer da
Zairen gertatzen ari dena?**

Historia luzea da kontatzeko
baina ahalik eta laburren eta garbien
azaltzen saiatuko naiz. Afrika erdi-
alde horretan bizi diren bi etnia,
Tutsiak eta Hutuak elkarren kontra
aritu dira beti. Hutu eta Tutsiak
Ruanda eta Burundikoak dira baina
bi etniak orain urte asko dela Zaire
ekialdera etorri ziren eta bertan
kokatu.

Tutsiek Ruanda eta Burundin
dute agintea eta Zaire ekialdeko

konpromiso asko ditu eta elkarren kontra ez egitearren eta han petroleorik ez dagoenez ez du ezer egingo. Arazo moral handia da hori. Hemengoan aberastasuna, hangoen heriotza.

• **Zuk zer konponbide ikusten diozu arazo honi?**

Lehenik eta behin hemendik armamentua gelditu beharra dago eta horrela poliki-poliki gerra itzaliko litzateke.

• **Bukavu proiektua betebete harrapatzen du gerrak. Zer eragin izango du proiektuan?**

Momentu honetan dena geldi dago, zaku porlan bat bera ere ez

“Hemendik armamenturik ez bada saltzen han ez da gerrarik egongo”




“Bukavu proiektuak aurrera jarraituko du, orain gainera laguntza gehiago behar dute”

dago Bukavu osoan. Nire ustetan Tutsiek zati hori euren egiten badute ere eskolak beti errespetatuko dituzte, bertako umek beharrezkoak dituzte eta. Bukavu proiektua aurrera joango da orain gainera gerra dela eta laguntasun haundiago behar dute.

• **Nola bideratzen da hemendik Bukavu proiektua?**

“La Obra Máxima” Donostian dagoen ONGaren bitartez bideratzen da. Hiruatx elkarteak dirua bialtzen du eta hemendik bitartekari zuzen batekin dirua eskuetan eramaten da Bukavura. Bertan Migel Gutierrez Aita arduratzen da proiektuaz.

Bukavu proiektua



Ruandako ume errefuxiatuentzat eskolak eraikitzeko Hiruatx Hirugarren mundu taldeak, iazko maiatzean martxan jarri zuen Bukavu proiektua.

Bukavu Zaireko ekialdean dagoen hiria da, Zaire eta Ruandaren arteko mugan dago, Kivu lakuaren ondoan. Leku aberatsa da, menditsua eta landaretza eta klima oso ona dituena.

Leku menditsua izatean jende asko herritik urrun bizi da mendietan. Bertako umek oso zaila dute hiriko eskolara jeistea. Alde batetik urrun bizi direlako, egunero euria egiten du eta lokatz handia dago. Bestetik bertako umeak ahulak dira eta ez daude hemen besteko ondo elikatuta. Arazo hau ikusita Bukavuko auzo horietan umeendako eskolak egiteko premia handia zegoen eta lan horretan gogor aritu dira Bukavuko biztanleak.

Bukavu proiektutik jasotako dirua, laguntza handia izan da beraintzat. Orain artean, zintzo lan egin dute bertakoek. Lehen mailako 2 eskola eraiki dituzte. Oraindik beste bat gelditzen zaie eraikitzeko eta baita erdi mailako eskola teknikoa ere.

Bukavu proiektuak aurrera jarraituko du eta mendian bizi diren umek eskolara joan ahal izango dute.

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Izozkitekigozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



Behobia-Donostia lasterketan parte hartuko duten atxabaltar batzuk

Behobia-Donostia lasterketarako atxabaltarrak gertu

IGOR DUBLAN

(17 urte)

• **Zenbagarren aldiz parte hartuko duzu Behobia-Donostia lasterketan?**

Aurten lehen aldia da.

• **Nola animatu zara?**

Oso giro polita egoten dela esan didate taldekoek. Takarraran egiteko beste aukera bat da eta gainera entrenatzeko beste modu bat da.

• **Zer dakizu ibilbidearen inguruan?**

Ibilbidearen perfila ikusi dut eta txirrindularitzako proba batentzako moduko perfila dela iruditzen zait. Gora behera haundiak ditu.

• **Zure baldintzetarako zer nolako ibilbidea da orduan?**

Ni 1.500 metrotan ibiltzen naiz ondoen, fondoa eta azkartasuna lantzen dira bertan baina hau hankei eragiteko beste esperientzia berri bat izango da.

• **Asko entrenatu zara?**

Bai, egunero entrenatzen dut, 6etatik 8etara, ordubete takarraran, gero hainbat karreretan parte hartzen dut.

• **Zein da zure helburua?**

Idealena lasterketa ordu 1:20-30 minututako tartean bukatzea izango litzateke.

• **Zein koloretako dortsala eramango duzu?**

Txuria, korrikalari gehienek eramaten dutena.



JESUS LOMBIDE

(51 urte)

• **Zenbagarren aldiz parte hartuko duzu Behobia-Donostia lasterketan?**

Ez dakit ziur, 10etik gora izango dira.

• **Hasiera batetik ona zein izan da aldaketa nabarmenena?**

Azken urteotan partaidetza asko gehitu da. Hasierako urteetan 2000 pertsona ingurukoa zen partaidetza, orain berriz 11000 ingurukoa. Hasiera batean bakarrik joaten nintzen herritik, orain lagun gehiago joaten gara.

• **Zelakoa da ibilbidea?**

Irteera txarra du. Jende asko dago eta jende asko pilatzen da. Irteera ia oinez egin behar izaten da. Bi aldatz gogor ditu baina jende artean joaten zarenez aldatzen gogortasuna gutxiago igartzen da.

• **Asko entrenatu zara?**


Bai asko. Urte guztian zehar ibiltzen naiz gertatzen. Gogorra da, baina eskerrak koadrila bat ibiltzen garena eta elkarren arteko laguntasuna dagoena. Honek indarra ematen du.

• **Zein da zure helburua?**

Bukatzeko asmoaz joaten naiz. Garrantzitsuena bertan egoten den giroa da. Gainera gero bazkaria izaten dugu eta giro ona sortzen da hemendik joaten garenon artean.

• **Zein koloretako dortsala jantziko duzu?**

Txuria.



Mendi astea ekintzaz beteta azaltzen zaigu

Murruxiko Elkarteak udazkenero moduan aurten ere mendi astea antolatu du azaroaren 20tik abenduaren 1era bitartean. Egun hauetarako hainbat ekintza izango ditugu: Segurtasunari buruzko hitzaldia eta kurtso praktikoa, bizikleta irteera, txakur-leren erakustaldia, Kangchenjunga eta Shisha Pangmako Inurrategi anaien proiektzioa, izotz eskaladaren inguruko proiektzioa, eta beste hainbat proiektzio interesgarri dira mendiko aste hau beteko duten ekintzak.



Manolo Sanchez madrildarrak emango du izotz eskaladari buruzko hitzaldia

Azaroak 20, eguaztena

Proiektzioa

“NEGUKO SOLSTIZIOA EUSKAL HERRIAN”

Patxi Sanz-Aitor Atxega

Euskal Herrian zehar gabonetako jaiak ospatzeko modu desberdinei buruzko ikus-entzutekoa da. Ohiturarik esanguratsuenak batzen dituzte eta baita baztertuta gelditu zirenak ere. Hainbat eta hainbat lekutan ohikoak ziren kuadrilen abestiak jasotzen dituzte.

Arratsaldeko 7,30etan Zaraia zineman.

Azaroak 21, eguena

Hitzaldia

“SEGURTASUNA MENDIAN”

(Lehenengo zatia)

Udaletxeko ganbaran arratsaldeko 7etan.

Azaroak 22, eguakotxa

Proiektzioa

MERU EKIALDEKO ESPOLOIA (6.450 m.)

SHIVLING II (6.504m) BRITANIAR RUTA

Jordi Corominas/Simon Elias

Gaueko 10etan Zaraia zineman.

Azaroak 23, zapatua

Goizean **BIZIKLETA IRTEERA HERRIKOIA** Arratsaldean **TXAKUR-LEREN** erakustaldia Durana kalean arratsaldeko 4etan hasita.

Azaroak 24, domeka

GAZTE IRTEERA

Azaroak 27, eguaztena

Proiektzioa

TURKIATIK BIRMANIARA BIZIKLETAZ.

Amaia Elozegi-Esther Mugertza

Turkia, Kurdistan, Iran, Balutxistan, Pakistan, Hunza, Baltistan, Punjab, India dira proiektzio honetan ikusiko ditugun herrialdeak. 10.000 kmtako ibilbidea. Musika, kultura eta erlijio desberdinak tartekatzen dira. Arratsaldeko 7,30etan Zaraia zineman.

Azaroak 28, eguena

Hitzaldia

SEGURTASUNA MENDIAN

(Bigarren zatia) Arratsaldeko 7etan udaletxeko ganbaran.

Azaroak 29, eguakotxa

Proiektzioa eta hitzaldia

IZOTZ ESKALADA. (Pirineo, Alpeetan, Kenia mendian eta Himalayan).

Izotzetan ibiltzeko teknikari buruzko hitzaldia.

Manolo Sanchez madrildarra

Gaueko 10etan Zaraia zineman.

Azaroak 30, zapatua

SEGURTASUN ETA ORIENTAZIORAKO MENDI

IRTEERA (Kurtso praktikoa)

Ondoren babajana.

Abenduak 1, domeka

Proiektzioa

KANGCHENJUNGA eta **SHISHA PANGMAKO** Inurrategi anaien proiektzioa. Arratsaldeko 7etan Zaraia zineman.

Segurtasunari buruzko hitzaldia eta kurtso praktikoa

Mendi astean izango den ekintzetariko bat dugu segurtasunari buruzko hitzaldia eta kurtso praktikoa. Mendian ibiltzen den guztientzat interesgarria gertatuko da. Bertan hainbat puntu ikutuko dira: mendian gerta daitezkeen egoera arriskutsuak, hauei nola aurre egin, mendiko materiala, e.a.

Teoria eta praktikaren bitartez erakustera emango da. Alde batetik azaroaren 21 eta 28an Federaziotik etorriko den kide batek mendiko segurtasunari buruzko hitzaldia emango du. Bestetik azaroaren 30ean mendi irteera egingo da orientazioari buruzko kurtso praktikoa emateko.

Ondoren babajana izango dute irteerara animatzen diren guztiek.



Ludoteka berriro martxan

Jostailu berriak erosteko eta zaharrak konpontzeko, astebetez ludoteka itxita izan dute Aretxabaletako umeek.

Bi urte pasatu dira Loramendi Elkarteak udalaren laguntzaz zabaldu zuenetik. Horrela 4tik 12 urtera bitarteko umeek beren aisialdia euskaraz "pasatzeko" aukera paregabea daukate.

Hurrek euren nortasuna garatzen dute bertako jostailuak erabiliz eta era berean adin bereko beste haur batzuekin harremanetan jartzeko aukera ere ematen du ludotekak.

Bukatzekeo aipatu beharra dago, gaur egun, 88 bazkidek gozatzen dutela bertako ekintza berezi eta jostailuez. Hala eta guztiz ere, bazkide izan nahi duten guztientzat herriko ludoteka zabalik dago.

Ludotekara etortzeko egunak:

4, 5 eta 6 urtetakoak: Asteazkena eta larunbata

7, 8 eta 9 urtetakoak: Astelehena eta osteguna

10, 11 eta 12 urtetakoak: Asteartea eta ostirala

Animatu! Zain gaituzue!

IRIARTE
**Umeen
denda**


Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

MEMESA S.L.
Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA

Mitarategarai
Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

BITXITEGIA
MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea

Eliza aurrealdean

Tfnoa: 77 13 57

ARGAZKIAK
Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

**ARBULO
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA


MAPFRE

Aseguroak

Errekararren, 3
Tfnoa: 77 11 76


**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79



Goitibeherak San Millanetan

Nor ez da akordatzen orain urte batzuk sasoi honetan Arkarazon egiten zen goitibehera jeitsieraz? Ez dira horren kontu zaharrak ere. Arkarazoko San Millanak ezagunak ziren goitibehera jeitsierengatik. Baina orain 5 bat urte utzi zitzaion antolatzeari.

Auzokideen inizatiba eta elkarlanaz antolatzen ziren jaiak. San Millan eguna, azaroak 12an izan arren ondoko astebukaera aukeratzen zen ospakizunetarako, meza, bola jokua, herri kirolak, musika taldea, txerri harrapaketa, asto lasterketa eta auto krossa ere egin zen urte batzutan zehar.

Goitibehera jeitsiera 15 bat urtez edo antolatu zela gogoratzen du Josu Guenetxeak, Arkarazoko Txaino baserrikoak. "Hasierako urteetan inguruko herritarrek partehartzen bazuten ere gero kanpotarren partaidetza haunditu zen. Gasteiztik, Bilbotik, Ermuatik... etorritako goitibehera zaleak batzen ziren gurean". Mendiolako monumentu parean zuen irteera eta banan-banan Km leko ibilbidea zeinek denbora gutxienean egin izaten zen helburua. Mota denetako tramankuluak ikusten ziren, zein baino zein bitxiagoak.

"Kanpotarrek gustoko zuten ibilbidea, aldatza eta bihurgune itxiak tartekatzen zituelako. Hori bai, motzegia zela ere esaten zuten". Behin edo behin kanpotarrak izan ziren irabazle, baina


Arkarazotarrak ere gogorrak ziren etxean. Istripu larririk ez du gogoratzen Josuk. Baina zartada bat edo beste ezinbestekoa zen horrelakoetan. Olabeneko buelta zen zartadak hartzeko leku aproposa.

Sariak ez ziren haundiak, baina guztiaren gainetik ondo pasatzea zen garrantzitsuena. "10.000 pezeta baino sari haundiagorik ez zen egon. Afizioagatik eta ondo pasatzeagatik hartzen zuen parte jendeak".

Azken bi urteetan Foru Aldundiak trabak jarri zituen goitibehera lasterketa antolatzeko. Goitibeheren rodamentuek asfaltoa apurtzen baitzuten. Horregatik gaur eguneko goitibeherak gomazko erruberak dituzte.

Begibistakoa da azken urteotan auzoetako jaiak izan duten beherakada. Herriko beste auzoetan moduan, meza, bazkari eta trikitilariekin ospatzen dituzte arkarazozarrek ere San Millan jaiak.

Zeinek daki, agian oraindik ere ikusiko ditugu Arkarazoko aldatzetan behera tramankuluak datozela.



LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

Top model



M.J. Aretxaga

Gaur egun garrantzi handia ematen zaio kanpoko itxurari. Hori dela eta hitz ezagunak bihurtu zaizkigu "Anorexia" "Bulimia" eta abar.

Udalak ere, itxuraren garrantziaz konturatuta bestuarioa berriztu die **munizipalei**. Hemendik aurrera dotore eta bero-bero egongo dira euren forro polar berriekin. Gu berriz, euren multekin izoztuta geldituko gara.

Itxura ederra eman zuten **Iñaki Agirre** eta **Fernando Osinagak**. Egin egunkariak antolatutako Euskal Herriko Mus txapelketan herri mailako irabazleak izan ziren. Bigarren **Migel Kintas** eta **Javier Vidriales** izan genituen. Irabazleek 8.000 pezeta irabazi zituzten eta orain azaroaren 10ean Hernanin jokatu den bigarren

faserako gertatu beharko dira. Ia ba, maila berdina erakusten duten bertan.


Itxura kontuekin jarraituz esan behar da ludoteka itxita egon dela jostailu berriekin txukuntzen zuten bitartean. **Leire Gorostiza** izango da ludotekako arduradun berria.

Itxura ona eman zuten **Asier Guenetxeak** Atxabaltan ospatu zen kriteriumean, baina euskal karaokean Euskadi taldeko txirrindulari moduan kantatu zuen eta ez zen hain fin ibili. Zaila da denean ona izatea.

Kantu kontuekin jarraituz esan behar da Loramendik euskal kanten ikastaroa antolatu duela. **Oier Sarasua** eta **Andoni Arana** arituko dira maixu lanetan. Gaztediari lekua utzi behar...

Bukatzeko, ezin aipatu barik utzi **Unai Loidi** kazetaritzako ikaslea eta Aretxagazetako batzordekidea. ETBn lanean dabil beka baten bitartez. Unai "Hirutan hiru" egunero eguerditan egiten den programako erredakzio lanak egiten ditu. Badakizue beraz meritu guztia ez dela Joxe Felipena.

Akabo gaurkoa dendak ixtear daude eta nik ere negurako traputxo batzuk erosi beharko ditut.



Marrazkiak: Mikel Arroiabé

loramendi
euskera elkartea



JOSE JAVIER IRURE

"Kantatzea, mendira joatea eta bizikletan ibiltzea gogoko ditut"



Jose Javier Irure 18 urtekin hasi zen iturgintza lanetan. Eskola utzi eta Otalazpiri laguntzen hasi zen. Gero bere kontura lan egiteari ekin zion. Lanaz gain bestelako afizioak ere baditu, abestea, mendia, txirrindua... baina hori berak kontatuko digu ondoen.

• **Gustoko duzu zure lana?**

Bai, oso gustora ari naiz.

• **Egin duzun juergarik onena?**

Soldauzkatik libratu nintzen egunean.

• **Zeintzuk dira zure afizioak?**

Bizikletan ibiltzea, mendia, igeri egitea, abestea...

• **Ateratzen duzu denerako denbora?**

Justu justu ibiltzen naiz baina moldatzen naiz.

• **Astebukaeretan zer egiten duzu?**

Mendira joan... Kanpora irtetzen dut askotan. Herrian gutxi gelditzen naiz.

• **Inoiz jantziko ez zenukeen arropa bat.**

Fraka bakeroak oso gutxitan jantzi ditut. Gehienetan maonezko frakak edo pintzadunak erabiltzen ditut.

• **Zer du polita udazkenak?**

Kolorea. Paisaiaren kolorea oso polita da.

• **Talde eta kantari gogokoena?**

Talde eta abeslari euskaldunak gustatzen zaizkit gehien. Askok gustatzen zaizkit, Benito Lertxundi, Urko, Gorka Knör...

• **Telebista, irratia ala egunkaria?**

Hirurak. Eguerdian egunkaria, irratia kotxean eta gauean telebista.

• **Platori gustokoena?**

Askok ditut, babak, bixugua... dena gustatzen zait.

• **Biziorik?**

Jatea.

• **Bertute bat?**

Jendearekin ondo moldatzen naiz eta ez dut umore txarrik izaten normalean.

• **Zein urtaro duzu gogokoena?**

Udaberria dut gustoko. Alaia delako, bizitasuna dago, animaliak, lorak...

• **Eguneko momenturik onena?**

Bazkaltzeko momentua.

• **Zer baloratzen duzu pertsona batean?**

Dena orokorrean.

• **Edateko garagardoa ala konbinatua?**

Kalimotxoa edaten dut.

• **Atxabaltako txokorik politena?**

Urku ingurua.

• **Abesbatzean ere kantatzen duzu?**

Bai, baritonoa naiz, askok gustatzen zait abestea.



Irakurtzeko liburuak

Orhipean



Titulua:

Gure Herria ezagutzen

Idazlea:


**Juan Carlos Etxegoien
(Xamar)**

Argitaletxea:

Pamiela, 1992

Oraingo honetan haurrentzako ezagupen liburu bat aukeratu dut. Gazteentzat eskolako liburu ez diren ezagupen edo kontsulta liburu gutxi argitaratzen dira, eta euskaraz gutxiago oraindik. Liburu hau bere aurkezpen bikainagatik aukeratu dut eta Euskal Herria ezagutu eta ulertzeko oso baliagarria delako. Bertan gai desberdinak tratatzen dira: historia, ohiturak, kirolak, jaiak, literatura eta abar... Liburu honek galdera mordo bati erantzuna emango dio, marrazki ederrez orniturik dago eta era errazean azaltzen ditu gauzak. Azken aldera aurkibidea du, gauzak errazago topatzeko eta bibliografia ere, beste liburu batzuk kontsultatu nahi izanez gero.

✍ Joseba Lopez de Armentia



ARGÍ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



**BASTER-ALDE
JATETXEA**

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETAKO

ESKORIATZA



Euskararen
astea

Azaroak 11

DIAPOSITIBA EMANALDIA

Bidai ezezagun bat. L. Ignacio Gonzalez. Arratsaldeko 7etan kultur etxean.

Azaroak 13 eguaztena

DIAPOSITIBA EMANALDIA

Guatemala Aitor Kortazar. Arratsaldeko 7etan kultur etxean.

Azaroak 15 eguakotxa

TAPIA ETA LETURIA BAND

Tapia eta Leturia Band gaueko 10etan frontoian. Sarrera takilan 800 pezeta aurrez, 600 (Arrano, Mirentxu eta Aldatz tabernetan).

Azaroak 16 zapatua

TAKOLO, PIRRIKX ETA PORROTX

Arratsaldeko 5etan frontoian TAKOLO, PIRRIKX eta PORROTX.

8etan TXIKITEOA GARDOKIREKIN.

Gaueko 9etan TXISTE AFARIA: Bergarako Aitor Muruamendiarez, Igor Oruesagasti eta Iñigo Almorza.

Azaroak 17 domeka

MARRAZKI LEHIAKETA

Goizeko 10etatik aurrera herriko plazan. 6tik 16 urte bitartekoendako. Sari desberdinak. Eguerdiko 1,15etan Euskal dantzak herriko plazan. Eskoriatzako Gorosarri dantza taldearen eskutik.

BERGARA




Azaroak 15

KONTZERTUA

"Mondragon brass" kamara musikako kontzertua. 10,30etan Novedades Aretoan.

ARRASATE



Azaroak 14

ZINEA

EL ALCALDE, EL ARBOL Y LA MEDIATICA (JBA). Amaia Antzokian gaueko 9,30etan.

Azaroak 21 eguena

ZINEA

LA HIJA DEL PUMA Amaia Antzokian gaueko 9,30etan.

A R E T X A Z O K A

LANA

• Seat Ronda SS-U salgai: 1460 cm³ eta 75 CVkoa egoera onean. 100.000 pezeta. Tfnoa: 79 15 96.

• San Migeletan txaketa bakeroa galdu zen bi giltzarekin. Informaziorik duenak deitu 79 01 05 telefonora.

• **Ameriketari au-pair.** Gai honen inguruan informazio gehiago gura duenak deitu telefono honetara: (943) 79 41 83 (Osane Ayastuy)

• Ardatza nekazari sektoreko hamabostekariak **publizista** bat behar du. Baloratuko da: nekazari sektorea ezagutzea, kazetaritzako ikasketak, publizitate lana ezagutzea, diseinu grafikoa eta ordenadore bidez maketatzen jakitea, komertzial arloan esperientzia, euskara.

Kurrikuluma bialdu: Ardatza / Plaza Simon Bolibar, 14 / 01003 Gasteiz. Epea: azaroaren 30a.

• Andereño diplomatua klase partikularrak emateko gertu dago. (OHoko lehen mailatik BOKo bigarren mailararte).
Telefonoa: 79 75 23.

ETXEBIZITZA

• Hornitutako lokala alokagai dago Eskoriatzan. Tfnoa: 71 41 34 Mariagatik galdetu.

• Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. 79 16 15 telefonora deitu goizez 10etatik 12etara eta arratsaldez 3,30etatik 8etara bitartean.

• Pisu salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguerdian eta arratsaldean).

• Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.

• Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.

• Garaje bat salgai dago Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).

• Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. Telefonoa: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du).

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



Azaroak 10 domeka

BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA

Azaroak 12 martizena

SAN MILLAN JAIK ARKARAZON

Azaroak 14 eguena

ZINE FORUM-a

Tril emakume taldeak antolatuta "UN MUNDO DE MUJERES" zine forum-a. Arratsaldeko 6,30etatik 9,30etara Loramendiren lokalean.

Azaroak 20-Abenduak 1

MENDIKO ASTEA

Murrukixo M. E.ak antolatuta MENDI ASTEAREN barruan hainbat ekintza izango dira, proiektzioak, irteerak... Egitaraua kirolen arloan.

Azaroak 21 eguena

MAHAI INGURUA

Tril emakume taldeak antolatuta "UN MUNDO DE MUJERES" AUTOESTIMARI buruzko mahai ingurua. Arratsaldeko 6,30etatik aurrera Loramendiren lokalean.

Azaroak 30 zapatua

OSKORRI

Azaroaren 30ean OSKORRI musika taldeak kontzertua eskeiniko du Aretxabaletako kiroletxean gaueko 10,30etan. Kontzertua Loramendi Elkarteak antolatuta du. Bertan Oskorriekin batera izango ditugu Kepa Junkera eta Kukubiltxo taldea ere. Oskorri taldearen 25. urteurrena dela eta diska berriaren kantak abestuko dituzte.

Zinea

Azaroak 8, 10, 11

AQUI LLEGA CONDEMOR, EL PECADOR DE LA PRADERA

Azaroak 9 (10,15etan), 10 (5etan)
LAGO NESS

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15
Domeka: (Umeen sesioa arratsaldeko 5etan) 7,30-10,15
Astlehena: 10,15

AQUI LLEGA CONDEMOR, EL PECADOR DE LA PRADERA

AKTOREAK: Chiquito de la Calzada, Bigote Arrocet, Naim Thomas, Julio Tejada.

ZUZENDARIA: Alvaro Saenz de Heredia

Alvaro Saenz de Heredia idatzia, frantsez aristokrata baten "Condenor" (Chiquito de la Calzada) eta bere mexikar zerbitzari leialaren (Bigote Arrocet) istorioa kontatzen du.

Biak mendebaldeko basamortu urrunean galdurik aurkitzen dira eta Parisera itzultzeko modua aurkitzen dute.

Bikote honek beste mutil batekin (Naim Thomas) topo egiten du bidean. Azken honen aita "Tuerto" gaizkilea (Julio Tejada) eta bere gizonak bahitua izan da.

Condenor pekatari eta beldurtiak garaipena lortuko du bere bihotz haunditasunagatik eta pelikulako ona delako.

Ikuslego mota guztiei zuzendutako pelikula da.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

- Udaltzakoak 79 10 00
- Udaltzaingoak 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarteak 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoak

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 71 44 07
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETAKO

J.J

ITURGINTZA


Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

sofa
leku

centro
hogar
muebles



a, eme... interiores



Estilo
guztietako altzariak
aurkituko dituzu
gure dendetan.

Zatoz, eta zuk
aukeratu!!

grupo



Amuebladora
Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 79 15 03
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92
sofa leku, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92